

1. BALIO PROPOSAMENA

Donostian ehunka pertsona bizi dira kalean jateko ezer ez dutenak, eta kasu larrietara jo gabe milaka familia daude oso diru kantidade eskasarekin pasa behar dutenak hilabetea. Gainera, inflazioaren ondorioz, supermerkatuko produktuak egunero garestiagoak dira eta normalean jendeak ez du denbora janaria erosi, plater osasuntsu eta nahikoa egiteko. Horregatik, guk pertsona guztiei ongi bazkaltzeko eskubidea bermatzeko zerbitzu hau eskuratu nahi diegu.

Guk sortutako proiektua hurrengoa da: gure intentzioa Donostiako ikastola desberdinetako jangeleen soberakinak hartzea da, izan ere, gu, ikasle moduan, konturatu gara, askotan, janari gehiegi botatzen dela/dugula zaborretara eta ondorioz janari hori bota ordez ikasleei ongi galdetzea zein janari kopuru nahi duten bazkaltzeko erabaki dugu (beti ere bazkari orekatu bat emanez) eta horrela, ikasleok soberakinak tupperretan sar ditzazkegu ondoren benetan behar dutenei emateko. Ekimen hau, enpresetako langileekin ere aurrera eramatea gustatuko litzaiguke, hau da, enpresetako jantokietan ekimen berbera egin nahi genuke.

Konpetentziatik bereizten gaituena zer da? Gure ekimenak gazteak gizartean sartzen laguntzen du eta horrela hauek lan mundura gertura daitezten lortuko dugula uste dugu. Halaber, beste “jantoki publikoekin” alderatuta guk ez dugu produktua sortu beharko; izan ere, soberakinak bakarrik erabiliko ditugu, eta gainera, horrela ikastola desberdinekin kate bat sortzea espero dugu. Modu honetara, guk kalidadea ziurtatuko dugu, janari hori lehenengo milaka gazteen jantokietatik pasako delako.

Normalean beste jantoki publikoak janaria asteburuetan eskaintzen dute eta, horregatik guk zerbitzu hori astean zehar baitaere osatzen lagundu nahi dugu, beste GKE-tari bezeroak kendu gabe, izan ere, arazoa benetan konpontzeko ezin dugu etekinetan bakarrik pentsatu eta horrela agian etorkizun gertu batean beraiekin kolabora dezakegu.

Horrez gain, gure proiektuak kutsu ekologikoa du; gure aburuz, gaur egungo klima aldaketa kontuan izanik, oso garrantzitsua da. Guk ez ditugu emisio kaltegarri gehiago sortu nahi eta ondorioz, ahalik eta plastiko gutxien erabiltzen saiatuko gara gure egunerokotasunean enpresa eta gizarteko parte bezala.

Azkenik, zerbitzu begetarianoa eskaintzeaz gain, zeliakoa ere aukeran emango dugu, ez dugu inor bere erabaki edo osasunarengatik baztertu nahi. Hasiera batean dieta ohikoenak eskainiko ditugu gehienetan, hau da, haragia, arraina, barazkiak... Baina irekiak gaude etorkizun batean aukerak batzea.